

IRUÑE ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK

---

***Ez al genuen sutan gure bihotza?*** (Lk 24,32)  
**Jesu Kristorekin bidelagun izatearen poza**

IRUÑE ETA TUTERA, BILBAO, DONOSTIA ETA GASTEIZKO  
GOTZAINAREN PASTORAL IDAZKIA

2013.eko GARIZUMA-PAZKOA



**FEDEAREN URTEA**

## Sarrera

*Jar ditzagun begiak geure fedearen iturburu eta betetzaile dugun Jesusengan*<sup>1</sup> Pazkora begira Garizumako ibilbidea hastean. Fedearen Urtea dugu aurtengoa, Benedikto XVI. Aita Santuak deitua, Vatikanoko II. Kontzilioaren 50. urteurrena eta Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidearen 20.a oroitu eta ospatzeko.

Bere gonbita hartzen dugu, bai sinesmena, Ebanjelioaren mezua sakondu, zabaldu eta proposatzeko, baita gure ebanjelizatze lana indarberritzeko ere. Gure arteko hainbat eta hainbat fededunengan eta elkartetan ikusten dugun sinesmen bizi eta landuagatik eskerrak eman nahi ditugu lehenbizi. Pozez aitortu behar dugu, Jesusengan dugun konfiantza edo, hobeto esateko, bere konfiantza sentitzea eta berari jarraitzea, gertatu zaigun gauzarik ederrena dela.

Emauserantz abiatutako bi ikasleen pazko-kontakizuna izango da Pastoral Idazki honen testuingurua eta gida. Hortxe aurkitzen ditugu fede esperientziaren oinarriko zutabeak eta Jesusekin batera bizitzako ibilbidean aurrera egiteko betiko deia. Ebanjelioko testu hori, Jesus bera ezagutu ez zutenek kultur giro berrian jarritako galderari ebanjelariak emandako erantzuna ere bada: “Jesus, gure artean fisikoki egon ez arren, bizi dela eta, non aurkitu eta ezagutu dezakegu gaur?” Galdera hau beti da bidezkoa eta guztiz aproposa da gaur egun ere guretzat. Ebanjelioko atal honen erantzunak fede esperientziaren guneko alderdiak gogoratzen ditu: Hitza entzun, sufritzen dagoenaren ondoan ibili, Eukaristia ospatu, elkarteko kide izan.

Idazki hau elkarrizketa pastoralerako zabalik, norberak bakarrik edo taldean sakontzeko eran aurkeztu nahi dugu. Horregatik, atal bakoitzaren ondoren, osagarriak eskaintzen dira, Testamentu Berriko eta Kontzilioko aipamenez eta gogoetarako eta elkarrizketarako galderez osatuak. Ea elkarrekin egindako irakurketa Emauskoaren antzeko esperientziarako abiapuntu suertatzen zaigun guztioi. Hala nahi genuke. Hona hemen Idazkiaren oinarriko testua:

---

<sup>1</sup> Hebertarrei 12,2.

## LUKAS 24, 13-35

Egun hartan [astearen lehen egunean] Jesusen bi ikasle, Jerusalemdik bi orduko bidean dagoen Emaus izeneko **herri txikira zihoazen**. Eta **gertakizun guztietaz elkarrekin hizketan ari ziren**. **Elkarrekin hizketan eta eztabaidan** ari zirelarik, Jesus ber-bera hurbildu zitzaien, eta haiekin batean zihoan; haien begiak, ordea, **itsu zeuden eta ez zuten ezagutu**.

Hark esan zien: «Zer da, bidean dakarzuena hizketa hori?» Eta goibeldurik gelditu ziren. Kleofas zeritzan bietako batek hitza hartuz, esan zion: «Zu bakarrik al zaitugu horren harrotz **Jerusalemen, egun hauetan han gertatu direnak ez jakiteko?**» Jesussek erantzun: «Zer, bada?»

Eta haiek: «Nazaretoko Jesusi gertatua. Profeta baitzen, egitez eta hitzez gizon ahaltsua, Jaungoikoaren eta herri guztiaren aurrean; nola apaiz nagusiek eta gure agintariek heriotzarako eman eta gurutzean josi zuten. Guk, berriz, Israel askatuko zuena Bera zela uste genuen; baina hirugarren eguna da hori gertatu zela. Gure arteko emakume batzuek, berriz, harri utzi gaituzte: goizean goiz hilobira joan eta Jesusen gorpurik aurkitu gabe itzuli ziren; eta bizi dela zioten aingeruak ikusi omen zituzten. Joan ziren guretar batzuk ere hilobira; eta emakumeek esan bezala aurkitu zuten; Bera, ordea, ez zuten ikusi».

Orduan Jesussek esan zien: «Bai zentzugabeak zaretela! Eta Profeten hitzak sinesteko motelak! Ez al zuen, bada, Mesiasek hori jasan behar; bere aintzan sartzeko?» Eta Moisesengandik hasi eta profetaz profeta, **Liburu Santuan Hartaz idatzitako guztia agertu zien**.

Zihoazen herrira iritsi zirenean, Berak aurrera zihoalako egin zuen. Baina haiek, geldierazi nahiz, honela ziotsaten: «Zaude gurekin; berandu da eta eguna iluntzera doa». Eta sartu egin zen haiekin egoteko.

Haiekin mahaian zegoela, ogia hartu, bedeinkapen otoitza egin, zatitu eta eman zien. Orduan ireki zitzaizkien begiak eta **ezagutu zuten**. Bera, ordea, itzali egin zitzaien.

Orduan honela esan zioten elkarri: «**Ez al genuen sutan gure bihotza, bidean hitzegiten zigunean, eta Liburu Santuak adierazten zizkigunean?**» Eta **berehala altxa eta Jerusalemera itzuli ziren**. Han aurkitu zituzten Hamaikak eta haien lagunak, esaten: «**Piztu da Jauna egiaz eta Simoni agertu zaio**».

Haiek adierazi zuten bidean gertatu zitzaiena, eta nola **ezagutu zuten ogia zatitzean**.

Fedearen bidea erakusten du kontakizun honek. Ikasleek, Jesus Piztua deskubrituz joan eta ezagutzeko prozesua bete ondoren, badute zer iragarri. Egin dezagun bat beraiekin testuaren punturik behinenetan.

Ebanjelioko atal honek bizitzako ibilbidea du begi bistan, azken batean. Hortxe goaz aurrera errores, beste gizon-emakume batzuekin batera, sinestunak zein sinesgabeak. Bizitzak berak eman dizkigu bidelaguntzat. Elkarrekin egiten dihardugun ibilbide horretan, sinesmenari buruzko elkarrizketa planteatu nahi dugu. Fedea pertsonak Jainkoaren dohaina zabal-zabalik hartzen duenean gertatzen da eta, bai hartzeko, bai transmititzeko, elkarrekin topatzea eta hitz egitea eskatzen du. Emausko bidean bezalaxe, eguneroko bizitzaren ibilbidean agertzen dira fedeari buruzko galderak, zalantzak, baieztapenak eta eztabaidak. Norberak bilatzen, deskubritzen, partekatzen eta, azken baten, bizitzen duena dago abiapuntuan.

## ***Herri txikira zihoazen... gertakizun guztietaz elkarrekin hizketan***

Kontakizunaren hasieran, bi lagun ikusten ditugu etsita, sufrimendua eta frustrazioa sortarazi dien tokitik iheska: *uste genuen hark askatuko zuela Israel*. Halere, ez dago dena galdua. Bi datu positibo jaso ditzakegu: ez doa bakoitza bere bidetik, baizik eta Jesusen mandatua mantentzen dute, ebanjelizatzerak binaka bidaliak izan zirenekoa; eta ez dira minaren eta etsipenaren bakardadean gelditzen, baizik eta horren arrazoiei buruz mintzatzen dira.

Bidea partekatzen eta Jesus norbere ondoan bidelagun sentitzen den neurrian suertatzen da ebanjelizazioa. Bizitzako bide horretan zehaztu dezakegu norentzat idatzi nahi dugun bereziki Pastoral Idazki hau:

- a) Kristau elkarteko kideok: elkartarekin bat egiten dugu oso-osoan eta bertan partekatzen dugun fede esperentziaz gozatzen dugu. Emausko bidea egina dugu, seguraski harantz eta honantz, behin baino sarriagotan. Baina ezaguna dugunez gero, lasai edo bidea berriro egiteko, partekatzeko eta Jesus Piztuarekin topo egiteak dakarren poza berriz ere sentitzeko motibazio gutxiarekin gelditzeko arriskua dugu.
- b) Bizitzaren gazi-gezak edo nahigabeak, norbere benetakotasunik ezak, gizartean edo Elizan jarritako itxaropenen porrotak, ebanjelizatzearen zailtasunek, eliztarron inkoherentziek edo fededunen testigantza kaskarrak eraginda, adoregabe edo etsita daudenak. Emausko ikasleen tokian jartzeko gonbita luzatzen diegu, haien antzera fedearen esperentzia eta bere gainezkako bizi-poza berriro senti ahal izan dezaten.
- c) Aparteko beharizan edo sufrimenduaren zamapean, krisiak gogor jota, hainbeste urtetako indarkeriak zaurituta, osasun egoera larrian, desegindako maitasunaren minetan, etxeko edo adiskide baten heriotzak suntsituta, bizitzak era batera edo bestera astinduta daudenak. Hauei gogorarazi nahi diegu Emauserako bidean, hau da, bizitzako benetako bidean, Jesus bertan dagoela eta etorkizuna beltz iruditzen zaigunean agertzen dela. Bere jarraitzaileek Piztuaren hurbiltasuna eta arnasa luzatu nahi dizkiegu.

## **Sakontzeko**

### **Itun Berritik**

#### ***Jauna, norengana joango gara? - Joan 6, 60-68***

Jesusek hitzak entzutean, haren ikasleatariko askok esan zuten: “Onargaitza da mezu hau. Nork jaramon egin?” Jesusek, ikasleak marmarka ari zirela oharturik, esan zien: “Honek eragozten al dizue sinestea? Bada, Gizonaren Semea lehen zegoen tokira igotzen ikusiko bazenute, zer gertatuko ote? Espiritua da bizia ematen duena; gizakia berez ez da ezertarako. Nik eman dizkizuedan irakatsiak espiritu eta bizi dira. Baina badira zuen artean sinesten ez duten batzuk”. Izan ere, Jesusek hasieratik zekien nork ez zuen sinesten eta nork salduko zuen. Eta esan zuten, gainera: “Horregatik esan dizuet ezin dela inor ere nirengana hurbildu, Aitak ez badio horretarako gaitasuna ematen”. Geroztik, haren ikasleatariko askok atzera jo zuten, eta aurrerantzean ez ziren harekin ibili.

Orduan esan zien Jesusek Hamabiei: “Zuek ere alde egin nahi al duzue?” Erantzun zion Simon Pedrok: “Jauna, norengana joango gara? Betiko bizia dute zure irakatsiek.”

### **Gogoeta eta elkarrizketarako**

1. *Joanen ebanjeliotik jasotako atal hau, ikasleek Jesusen heriotzaren ondoren bizi izan zuten egoerarekin konpara daiteke neurri batean. Halaxe ikusten dugu Emausa doazen ikasleen pasartearen hasieran.*

- *Bi pasarteak aurrean dituzula, ba al dago antzik eta diferentziarik ikasleengan?*
- *Zein pasartetan agertzen da hobeto zure egoera?*

2. Gogora ekarri fededun bezala bete duzun ibilbidearen unerik garrantzitsuenak. Zer gertakizun berezik izan du eragin baikorra edo ezkorra? Zergatik?
3. Pozez eta Jainkoagan konfiantza jarrita bizi al duzu fedea?
4. Bakarrik al zabilta Jesusi jarraitzen ala beste batzuekin partekatzen duzu zure esperientzia? Nola? Non?
5. Sinestea eta Jesusi jarraitzea dela eta, nola ikusten dituzu zure ingurukoak (etxean, lanean, gizartean)? Nola ikusten dute besteek zu fededun izatea?

### Vatikanoko II. Kontzilioak esana

“Oraingo gizon-emakumeen poz eta itxaropenak, tristura eta larritasunak, batez ere behartsuenak eta nahigabetu guztienak, Kristoren ikasleen poz eta itxaropen, tristura eta larritasun ere badira eta ez da gizakiarenik ezer, haien bihotzean oihartzunik ez duenik (GS 1).

## Jerusalemen gertatu direnak

Sufrimenduak ihesaldia eragin du. Badira arrazoiak ikasleen krisia azaltzeko eta, behar bada, haien ikuspuntutik baita justifikatzeko ere. Eraso sentitu dute barru-barruan, gehien maite zutena, ordura arte bizitzako zentzua eta geroko bokazioaren bermatzailea zena hil dutelako. Uste osoa jarria zuten harengan eta itxaropenen porrota jaso zuten. Ezin dute inondik inora gainditu Jesusen gurutzia.

Ez da zaila, gaur egun “Jerusalemgo gertakarien” luzapena ikustea, gurutzearen itzal luzea, bere misterio sakona. Krisiak gogor jo eta desitxuratutako pertsona eta taldeetan ikusten dugu; hamarkadetan zehar indarkeriak eragindako hainbat eratako biktimengan; gizartean baztertuta edo bazterrera erortzeko arrisku biziaren daudenengan; etsi-etsian lan bila dabilzanengan; ustelkeriaren berriak eragindako mesfidantzan; gaixotasun larri eta mingarriren bat daukatzenengan; bakardade saminean bizi direnengan; erlijio askatasunerako eskubidea dela eta, jazarriak edo erasotuak diren pertsona eta elkarteetan; bizitzaren duintasuna bere sortzetik hil arte zaintzen ez duen nolabaiteko heriotzaren kulturaren; gurengandik hurbil zein urrun sufritzen duten familietan; bizitzaren zentzurik, itxaropenerako arrazoirik edo konfiantzazko maitasunik aurkitzen ez dutenengan.

Orain bi urte, *ekonomia gizakiaren esanetara*<sup>2</sup> jarri beharra aldarrikatzen genuenean, krisi egoera nabaritzen genuen antropologian, etikan eta kulturaren. Gure garaiko balore ederrak, hots, gizakiaren duintasuna, solidaritza, giza eskubideen errespetoa, pertsonaren autonomia, askatasuna edo bizitzako arlo guztietan parte hartzea, lankidetzaren edo erantzukizuna, kinka larrian daude sarritan, eta hainbatek ikusten du ez zaizkiela aitortzen.

Fededunoi ardura eta min ematen dizkigute Jainkoa ahazteak eta erlijiotasunaren edozein azarna, ezkutatu edo barrengarri eginez, ito egin nahi duen laizismoak. Oinarriko printzipio batzuk desagertzea ere ardura eta erronka da guretzat; hala, azterketarik gabe dena ontzat ematen edo egia ezagutzeko edozein aukera baztertzen duen erlatibismoa.

<sup>2</sup> Iruñea eta Tuteran, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainak, *Ekonomia gizakiaren esanetara. Krisialdian, bihotz-berritzea eta elkartasuna, Garizuma-Pazkoa 2011.*

Jerusalemen gertatua gaur ere gertatzen da, dudarik gabe. Eta behin baino sarriagotan, albora begiratzeko edo, Emausa doazenen antzera, ihes egiteko tentazioa senti dezakegu. Halere, badira gure kristau elkarteetan eta gure gizartean zerbitzuaren eta laguntzaren eredu kontaezinak, minak arintzen eta giza-duintasuna zaintzen dihardutenenak. Bizitza sagaratuko kideak eta elkarteak edo munduan zehar dabiltzan misiolariak aipatzea besterik ez dago. Hainbat erakunde zibil eta, Caritasen antzera, hainbat eliz entitateren lanak argi erakusten du hainbat gizon-emakumeen jarrera azkenekoen alde. Sufritzen dagoenaren ondoan egotea, ez ote da era guztietako gaitzaren kontra dagoen Jainkoaren ezaugarri? Ez ote da Bera erruki eragilea eta bihotzean *maitasun-egintzetan agertzen den sinesmena*<sup>3</sup> sortarazten eta indartzen diguna?

Sufrimenduak Jainkoagandik urruntzea erakar dezake, egia esan, Jainkoarekin bateraezina dela uste izateagatik edo Jainkoaren eskutik utzia sentitzeagatik. Pentsalari bat baino gehiagoren esanetan, benetan hartu beharreko ateismoa sufrimendutik sortzen dena omen da. Baina sufrimendua fedearen benetakotasuna frogatu eta agertzeko aukera ere izan daiteke. Dena den, garai garratz honetan, oso garrantzitsua da zera jakin eta azaltzea: gaitza ez datorrela sekula Jainkoagandik, ez egitez, ez egin behar dena ez egiteagatik. Gure giza izaeragatik eta pekatuagatik sufritzen dugu; batzuetan, erabaki libre eta zuzengabeengatik izango da, eta beste batzuetan, nahiagabe izango da, gure nahitaezko ahuleziaren ondorenez.

Jainkoa ixilik dagoela ematen duenean, zergatik jo ez zuzen Beragana? Gure bizitza kolokan ikusten dugunean, ukatu egin behar ote dugu maitasuna, ontasuna, altxor, zentzu eta egia den Jainkominia? Sufrimenduaren aurrean erakusten dugun errebelia bera ez ote da barru-barruan daramagun ontasun- eta zuzentasun-egarriaren seinale? Edozeinengan nabaritu daitekeen betetasun nahia ez ote da Jainkoa oroitzen digun aztarna? Emausko bidean Jesus agertzen da, ezagutua izan ez arren, etorkizunak itxurarik ilunena duenean.

## Sakontzeko

### Itun Berritik

#### *Hartzazue nire uztarria eta ikasi niregandik - Mateo 11, 25-30*

Behin batean Jesus honela mintzo zen: “Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu. Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogoko. Nire Aitak nire esku utzi du dena. Eta inork ez du Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere inork ezagutzen, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak. Zatozte niregana, nekatu eta zamapetu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedena. Hartzazue nire uztarria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitarako atsedena; eraman-erraza baita nire uztarria eta arina nire zama”

### Gogoeta eta elkarrizketarako

1. *Zuregan edo besteengan ikusten dituzun sufrimendu edo injustiziazko esperientziak, zer eragin dute zure fede bizitzan?*
2. *Gogoratzen al duzu sufrimenduak eta minak jota fedearen argia indartu edo aurkitu duenik?*
3. *Zure inguruan nabaritzen dituzun sufrimenduen artean, zeinek du eraginik handiena zuregan? Zein da aparteko erronka Jesusen ikasleontzat? Zergatik?*
4. *Nola adierazten eta bideratzen dituzu zure errukia eta laguntza besteen sufrimenduarena aurrean? Zer eragin du horrek zure fede bizitzan?*

<sup>3</sup> Gal 5,6.

## Vatikanoko II. Kontzilioak esana

“Elizak ere maitasunez besarkatzen ditu giza ahultasunaren mendean nahigabez daudenak; areago oraindik, behartsu eta nahigabetuengan bere Fundatzaile behartsu eta nahigabetuaren irudia aurkitzen du; haien miseria arintzeaz arduratzen da eta haiengan Kristori zerbitzatzea bilatzen du” (LG 8).

## Eztabaidan... itsu zeuden eta ez zuten ezagutu

Emausko ikasleak batera doaz, baina elkartasuna ahula da: eztabaidan ari dira eta ez dira gauza ezer ikusteko. Ez dute sinetsi taldeko emakumeen esana, piztueraren berri eman dietenean. Triste egoteaz gain, itsu daude. Itsukeria, hain zuzen, bekatuaren senide da ebanjelioetan. Kontakizunaren alderdi honek gure elkartean eta Elizaren arazoak ikusteko aukera ematen digu. Gizarteko erronkez gain, gureak edo Elizarenak ere hor daude: gure sinesmena hauskorra eta ahula da, norberarena zein elkartearena. Ebanjelizatzearen krisiak kristau elkartean bertan ere baditu bere arrazoiak.

Komunio arazoak ikus daitezke argi gure artean, eta horrek kalte egiten dio gure misio ebanjelizatzaileari. Horregatik, eliz elkartasuna landu eta indartu behar dugu. Elkarriketa sakondu eta elkar ezagutza bultzatu behar dugu espiritualtasun desberdinen artean. Komunioa, komunikazioa eta eskuhartze arduratsua zaindu behar ditugu gure elkarte eta elizbarrutietan. Batzuetan ilusiorik eza, ez-kortasun- edo arrangura-giro iraunkorra eta baita zatiketa ezaugarriak ere nabaritzen ditugu. Horiek sendatu beharra dago.

Guzti hori kontuan izanik, norbere hutsegiteak aitortzeko beldurra gainditu behar da eta parkamena eskatu eta eman. Jainkoak guregan egiten duena, bere Espirituak darama aurrera. Bere lana egiten uzteko, batak besteari lagundu behar diogu oitizaren, elkarriketaren, elkarren estimuaren eta senide arteko zuzenketaren bidez. Elizari diogun maitasuna eta atxikimendua probatzeko eta indartzeko aukera dugu.

Horregatik, ba, utz diezaiogun Jaunari gure bizitzako ibilbidean laguntzen. Sinets dezagun tinko, gure ahulezietan hurbilago dagoela behar bada. Elizan denok bizi behar dugu beti bihotz-berritzerako jarrera, artzaiok eta eliztarrok. Horrek fedearen obedientzia eskatzen du, hau da, Jainkoaren nahia askatasunez eta konfiantzaz onartzea.

## Sakontzeko

### Itun Berritik

#### *Gure kontra ez dagoena, gure alde dago - Markos 9, 33-40*

Kafarnaumera iritsi ziren. Eta, etxean, Jesusek galdera hau egin zien: “Zer eztabaida izan duzue bidean?” Baina haiek hitzik ez; beren artean handiena nor ote zen eztabaidatu baitzuten bidean. Eseri zen Jesus eta, Hamabiei dei eginik, esan zien: “Lehena izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria”. Eta gero, haur bat hartu, haien aurrera ekarri eta, magalean zuela, esan zien: “Honelako haurra nire izenean onartzen duenak neu onartzen nau; eta ni onartzen nauenak, ez nau ni onartzen, bidali nauen hura baizik”.

Joanek esan zion: “Maisu, gizon bat ikusi dugu zurei zenean deabruak botatzen, eta eragotzi nahi izan diogu, ez baita gure taldekoa”. Baina Jesusek erantzun: Ez eragotzi; ez baita inor, nire izenean mirari bat egin eta gero nitaz gaizkiesaka ihardungo duenik. Hau da, gure kontra ez dagoena, gure alde dago”.

## Gogoeta eta elkarrizketarako

1. Nola bizi duzu Elizarekiko atxikimendua? Eliz arlo edo talderen batetik urrun sentitzen al zara? Zergatik?
2. Nola jartzen zara Eliza osatzen dugunon akats edo hutsegiteen aurrean?
2. Zer alderdi ikusten duzu ahul gure eliz komunioan? Zer egin daiteke eliz elkartasuna sendotzeko?
4. Zer egin dezakegu gure kristau elkarteak bere inguru kultural eta sozialarekin dituen harremanak hobetzeko?

## Vatikanoko II. Kontzilioak esana

“Ateismoaren sorreran beren parte ez hain txikia izan dezakete fededunek, fede-heziera baztertuz, doktrinaren azalpen gezurrezkoa eginez, edota beren bizitza erlijioso, moral eta sozialeko hutsegiteekin, Jainkoaren eta erlijioaren benetako aurpegia agertu baino gehiago ezkutatu egin dutela esan daitekeelako”(GS 19).

## ***Liburu Santuan Hartaz idatzitako guztia agertu zien***

Ikasleen barrua piztu eta sutan jartzen da, hain zuzen ere, Jesusek Liburu Santuak aztertzen eta azaltzen dizkienean. Haiek ezagutzen zituzten, baina gurutzeko eskandaluak begiak lausotu eta usteak usteldu egin zizkien.

Vatikanoko II. Kontzilioaren ukaezineko emaitza da, Liburu Santuetarako egarria piztea eta Biblia Jainkoaren Herri osoaren eskuragarri egitea. Katolikook aurrerapauso handiak eman ditugu, Jainkoaren Hitz idatzia gure altxor nagusi bezala aurkitzen eta bertan argia bilatzen Piztua ezagutzeko eta berari jarraitzeko. Emausko ikasleen antzera, norbaiten laguntza behar dugu, ahalik eta egokien ulertzeko.

Bibliak, bere osotasunean eta liburu bakoitzean, genero literario eta idazkera desberdinen bidez, pertsonak eta elkarteek egoera oso diferenteetan bizi izandako fede esperientzia luzatzen du. Jainkoak gizadi osoarentzat duen maitasun eta salbamen asmoa agertzen du. Denok gara norbere esperientzia Liburu Santuen eta bereziki ebanjelioen aurrez-aurre jartzera deituak, Piztuaren laguntza eta irakaspenak sentitzeko. Norbere giza esperientzia, Elizaren Tradizio eta Magisteritzarekiko elkartasunean irakurritako Liburu Santuen argitan aztertuta, fede bizipenera zabaltzen da. Horrela, Jainkoaren Hitz aparteko tresna bilakatzen da norbere ebanjelizaziorako eta misio ekintzarako. Behar-beharrezkoa dugu denok Hitzaren entzule egitea, bizitzako esperientziak bere argitan argituak izan daitezen. Hori giltzarria da ebanjelizazio sakon eta iraunkorra nahi bada.

Jainkoari esker, kristau herriak gero eta hobeto ezagutzen ditu Liburu Santuak. Azken urteotan, Benedikto XVI. Aita Santuaren *Verbum Domini* Burubide Apostolikoak (2010) eta, gure elizbarrutietan, *Jainkoaren Hitz nork bere egin eta aldarrikatu* Pastoral Idazkiak (2009), Biblia irakurtzeko eta Liburu Santuak talde eta elkarteetan ezagutarazteko aupada galanta eman zuten.

Izan ere, pozez beterik ikusten dugu, Jainkoaren Hitzaren estimua ahazten doala gure artean. Biblia taldeek, bizitza aztertzeko taldeek, katekumenotzek, katekesiak bere aldi guztietan, *lectio divina* delakoa bultzatzen dutenek zera erakusten dute: Jainkoaren Hitz errotoz doala gure elkarteetan. Jainkoaren Hitzak duen lagaezineko eliz dimentsioa kontuan izanik, laguntza egoki gehiago eta ondo prestaturiko pertsonak behar dira, irakurketa egiten laguntzeko.



Homiliaren garrantzia ere azpimarratu nahi dugu. Askorentzat, katekesi biblikoa hartzeko eta norbere bizitza iragarritako Hitzaren argitan aztertzeko aukera bakarra da. Une aproposa da hurbilekoak eta urrunekoak ebanjelizatzeke. Horregatik, arretaz prestatzea lehenbiziko zeregina da gotzain, apaiz eta diakonoentzat.

Hitzaren ministeritza eder hau nola otoitzean erabiltzen, prestatzen eta betetzen dugun aztertu behar dugu lasai, benetan Jainkoaren Herriaren fedea elikatu, bihotzaren berrikuntza landu eta bizitzako edozein egoeratan gatz eta argi izateko adore eman dezan.

## Sakontzeko

### Itun Berritik

#### *Oinarriak harkaitzean zituen - Mateo 7, 24-27*

“Nire hitz hauek entzun eta betetzen dituena, etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zuhurraren antzekoa da. Eurijasak izan ziren, uholdeak etorri, mendebalak jo, eta etxeari eraso zioten; baina ez zen erori, oinarriak harkaitzean zituelako.

Nire hitz hauek entzun bai, baina betetzen ez dituena, ordea, etxea hondar gainean eraiki zuen gizon zentzugabearen antzekoa da. Eurijasak izan ziren, uholdeak etorri, mendebalak jo, eta etxeari erasozioten; eta erori egin zen eta dena hondatua gelditu”.

### Gogoeta eta elkarrizketarako

1. Zer harreman duzu Liburu Santuekin? Noiz, non eta nola irakurtzen edo entzuten duzu Jainkoaren Hitza?
2. Hitza entzuteak zer eragin du zure kristau bizitzan? Eta otoitzean Jainkoarekin elkarrizketan?
3. Zer eragozpen duzu Liburu Santuak ulertzeko? Zer behar izango zenuke irakurri eta hobeto aprobetxatzeko?
4. Gogoratu Bibliako testu edo pasarteren bat, zure bizitzan oihartzun berezia izan duena. Zergatik?

### Vatikanoko II. Kontzilioak esana

“Liburu Santuetan, zeruetan dagoen Aita bere seme-alaben bidera irteten da maiteki eta haiekin hitz egiten du; eta hain handia da Jainkoaren hitzaren ahala eta indarra, non Elizaren euskarri eta kemen baita, fedearen sendotasun bere seme-alabentzat, arimaren janari, bizitza espiritualareni turri garden eta betiereko” (DV 21).

## Ogia zatitzean ezagutu zuten

Emausko topaketa *astearen lehen egunean* gertatzen da, igandez. Jaunaren Eguna da. Ogia zatitzea, hau da, Eukaristia, kristau eta eliz bizitzaren erdigunean dago.

Kristau liturgiaren pausoei jarraituz, Eukaristia Hitza entzun eta azaldu ondoren ospatzen da. Orain bizitzako Ogi egiten den Hitzak girotu eta prestatu egin du topaketa.

Ebanjelioko pasarteari begira, aldaketa dezentea nabaritzen da ikasleengan. Hitzaren entzuleak izan dira; azalpenak entzun dituzte; ordura arte hartzaileak izan dira. Orain aurrea hartzen dute eta gonbita luzatzen diote ibiltari ezezagunari, beraiekin gelditzeko, mahaia eta aterpea partekatzeke: *Zaude gurekin*. Jesusek liluratuta zeuden jadanik. Laster, ogia bedekatu eta zatitzean konturatuko

dira, etxean gonbidatu sartu dena benetako gonbidatzailea dela. Bera da protagonista nagusia, Bere laguntza izan, Bere hitza entzun eta Berari jarraitu diotenen fedea piztuz eta bizkortuz betetzen duten ibilbidean.

Horixe gogoratzen du Vatikanoko II.ak, liturgia Kristoren eta bere Gorputza den Elizaren ekintza dela aitortzean eta hortik, fededunek ohartuki jarrera biziz eta onuraz parte hartzea, eliz bizitza osoaren berrikuntzarako kriterio nagusitzat jotzean. Jesus Bepiztuaren ezaguerak Eukaristian du bere gailurra, hauxe baita *gure sinesmenaren misterioa*. Liturgia, beraz, Elizaren gorengo mailako ekintza da eta indar ebanjelizatzaile ikaragarria du. Gizon edo emakume heldu bezala sinesmena deskubritu edo berreskuratu duten hainbaten esperientziak elizkizunen baten izan du bere abiapuntua.

Emausko ikasleen pasartean aipatzen den Eukaristia eliz bizitzaren erdigunean kokatzen da eta gehien ospatzen den sakramentua da. Dena den, ez du liturgia agortzen. Egia esan, sakramentu guztiak dira, bakoitza bere egoera eta garaian, Piztuarekin bat egiteko topagune. Denetan behar da lehenik Hitza iragarri eta katekesi egokia eskaini.

Gure elizkizunen kalitatea aztertu beharko genuke alderdi askotatik eta baloratu nola datozen bat Vatikanoko II. Kontzilioak martxan jarritako liturgi berrikuntzarekin eta nola betetzen dituzten harrez geroko Elizaren xedapenak, benetan Kristoren eta bere Gorputzaren ekintza izan daitezen, batasunaren eta maitasunaren sakramentu.

Garizuma Emausko bide zabal bezala ulertu da kristau tradizioan: bihotz-berritzeko, barneratzeko, Jainkoarengan eta hurkoengan konfiantza indartzeko ibilbidea. Adiskidetzearen sakramentuak sendotu egiten ditu gure pausoak. Aldi honetarako sakramentu berezia dugu pazko topaketa prestatzeko. Sakramentu honek Jainkoaren konfiantza, harrera eta baldintza gabeko barkamena agertzen ditu, gure kaskarkeria eta bekatuaren gainetik. Ezinbestekoa da gure sinesmen eta jarrera misiolariarentzat. Onartua sentitzen denak onartu egiten du; barkatua izan denak barkatu egiten du; konfiantza hartzen duenak eman egiten du.

Adiskidetzearen sakramentuak eta bere praxiak gogoeta sakona eta proposamen berriak behar dituzte: nola indartu, eskaini eta erabili norbere eta parrokia eta elkarteetako bizitzan, Elizaren xedapenei zintzo jarraituz.

## Sakontzeko

### Itun Berritik

#### *Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena - Korintoarrei lehen gutuna 11, 23-26*

Jaunarengandik hartu nuen nik, neure aldetik zuei eskualdatu dizuedan hau: Jesus Jaunak, saldu zuten gauean, ogia hartu zuela eta, eskerronezko otoitza egin ondoren, zatitu eta esan zuela: “Hau nire gorputza da, zuentzat ematen dena. Egizue hau nire oroigarri”. Berdin egin zuen koparekin afal ondoan esanez: “Kopa hau itun berria da, Jainkoak nire odolaz ezarria; egizue hau, edaten duzuen bakoitzean, nire oroigarri”. Beraz, ogi honetatik jaten eta kopa honetatik edaten duzuen bakoitzean, Jaunaren heriotza iragartzen duzue, bera etorri arte.

### Gogoeta eta elkarrizketarako

1. Zer eragin du zure bizitzan Eukaristian parte hartzeak? Nola prestatzen zara horretarako?
2. Nola eramaten duzu zure bizitza elizkizunera? Zer eragin du honek zure bizitzan?
3. Eukaristiako zein alerdi dituzu gogokoen? Zure ustez, zeintzuk hobetu beharko lirateke? Zer egin dezakezu zuk horretarako?

4. Gogoratu sakontasunez bizi izandako elizkizun bat. Zergatik izan zen hain sakona?

5. Nola bizi duzu Adiskidetzearen sakramentua?

### Vatikanoko II. Kontzilioak esana

“Liturgian jotzen du Elizaren jardunak bere gailurra, eta, era berean, liturgia da Elizaren indar guztiaren iturri” (SC 10).

## ***Berehala altxa eta Jerusalemara itzuli ziren***

Ebanjelizatze prozesua ez da osatzen harik eta ebanjelizatua apostolu bilakatu arte, hau da, bidalia izan arte. Eukaristia jomuga da eta, era berean, abiapuntua elkartasunerako eta misiorako. Bihozberitze prozesuan kokatzen da.

Jesusekin topo egitearen esperientzia ez da norbere barruan gordetzeko, zabaltzeko baizik. Norberetzat berri ona izan dena transmititzeko bultzada agertzen da. Jerusalemetik ihesbidea zena itzulbidea da orain, beste ikasleekin galdutako elkartasunaren bila, Piztuaren dohaina dela jakinik.

Jaunarekin topo egitearen poza elkartean partekatzen da. Hantxe entzuten eta aztertzen dira antzeko kontakizun eta esperientziak: Kleofasena, Simonena, besteena... eta atzo eta gaur bizitzako bidean Jesu Kristo aurkitzen duten hainbat eta hainbat gizon eta emakumerena. Posible litzateke elkarriketa, laguntza eta babes guneak sortaraztea bila dabilzantzat edota, lehenago gutxi-asko fededun izanda gero, sinesmenera hurbiltzeko prest daudenentzat?

Egia da, Vatikanoko II. Kontzilioaren esanetan, Elizak beti duela garbitzeko eta berritzeko premia. Baina bertan sortuak izan eta jaio ginen fededun. Berak eskaintzen digu Jesu Kristo Hitzaren, sakramentuen eta zerbitzuaren bidez eta bere hainbat seme-alaben testigantza miragarriaren bitartez. Santutasunerako deia zabaltzen digu guztioi, era askotako bokazioen bidez. Harrera eta zerbitzurako jarrerak aztertu beharko genituzke, gure errespetuaren fintasuna, bidelagun izateko eta elkarriketa zabal baterako gaitasuna.

Gaur egun ere, gure elkarteetan hartzen, partekatzen eta zabaltzen da fedea, barruan zein kanpora begira. Sarritan ikusten ditugu makalik; indartsuagoak, ugariagoak eta biziagoak nahi genituzke; ho-beak izan zitezkeen. Dena den, beraiek dira, balio eta muga artean, onartzen gaituztenak eta gaur egun fedearen lekuko izaten ahalegintzen direnak. Baliabide eta tresna txiki, apal eta makalen bitartez betetzen du Jainkoak bere lana. Bere indarra ahulezian adierazten da era miragarritz. Ez dezagun ahaztu, gaurko elkartearen eta amesten dugunaren artean, benetan posible dena dagoela. Hau da, norbere testigantza eta atxikimenduaren bidez, konfiantza Jesusengan jarrita, kristau elkarte zintzoagoa eta misiolariagoa egiten lagun dezakegu.

Era askotako elkarteetan artean, familiak “etxeko Eliza” bezala duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Hor sortzen baikara bizitzara eta sinesmenera; hor doaz lantzen gure bizitzan erabakiorrak izango diren baloreak eta jarrerak. Ezinbesteko ingurua da erlijio-esnaera eta kristau sarbidea gartzeko. Lagun diezaiegun familiei beraien helburuak iristen, Elizan eta munduan duten bokazioa betetzen.

Pozik eta esker onez ikusten dugu gure kristau elkarteek eta bizitza sagaratuko taldeek gizarte honetako eta mundu guztiko pertsona eta talde behartsuenekin duten solidaritza; nola bizi eta aldarrikatzen duten bizimodu neurritsua; nola otoitz egiten duten konfiantzaz, etengabe; nola ospatzen duten fedea; nola diharduten bakearen eta adiskidetzearen alde gure artean; nola indartzen duten era guztietako boluntariora; nola bultzatzen duten Ebanjelioan oinarritutako hezkuntza; nola jabetzen diren euren ahuleziaz eta nola arduratzen diren etorkizunaz, dei egin, sagaratu eta bidali gaituenarengan konfiantzarik galdu gabe.

## Sakontzeko

### Itun Berritik

#### *Gure elkartasuna Aitarekin eta honen seme Jesu Kristorekin da - Joanen lehen gutuna 1, 1-4*

Hasieratik zen biziaren hitza, entzun eta geure begiz ikusi duguna, begiratu eta geure eskuz ukitu duguna, iragartzen dizuegu. Izan ere, bizia agertu egin zen, ikusi egin dugu eta beronen lekuko gara; Aitarekin zegoen eta guri agertu zitzaigun betiko bizia iragartzen dizuegu. Ikusi eta entzun duguna dizuegu zuei ere iragartzen, zuek ere gurekin elkartasunean bizi zaitezten. Eta gure elkartasuna Aitarekin eta honen seme Jesu Kristorekin da. Eta gauzok idatzi, gure poza bete-betea izan dadin idazten ditugu.

### Gogoeta eta elkarrizketarako

1. Zer ematen diezu kristau elkarteko kideei eta zer hartzen duzu haiengandik?
2. Zerk indartu ditzake fededunen arteko harremanak?
3. Fededunen testigantza zein alderdi baloratzen da batez ere gaur egungo gizartean?
4. Nola bultzatu fedearen testigantza gaur egungo kulturaren?
5. Nola hobetu gure kristau elkarteen gar ebanjelizatzailea?

### Vatikanoko II. Kontzilioak esana

“Komunitate hauetan, nahiz eta batzuetan txikiak eta pobreak izan edota sakabanaturik bizi, hantxe dago Kristo, honen indarrez biltzen baita Eliza, bat, santu, katoliko eta apostolikoa. Izan ere, Kristoren gorputz eta odoletik hartzeak, hartzen dugun hura izatera garamatza” (LG 26).

## *Piztu da Jauna egiaz*

Norbere esperientzia konfirmatu, baieztatu egiten da eliz elkartean. Emaustik bueltan datozen ikasleek, hitz egin orduko, beste batzuek aurrea hartu dietela ikusten dute. Historia ez da beraiekin hasten, baina beraiek ere elkartean partekatzen eta transmititzen den historia horren atal dira. Piztua aurkitu ondoren, ikasleak misiolari bihurtzen dira, piztuera iragartzeko: Jesus bizi da eta bere bizia eman digu! Badago etorkizunik gizon-emakumeontzat!

Jesusen piztuera berri onen artean onena da, itxaropen eta erantzukizun sozial guztien iturburua, fedearen eta ebanjelizatze lanaren gunea.

Emausko bidetik era guztietako misio bieak abiatzen dira. Lehen kristau elkarteetatik zabaltzen dira misioaren bideak herrialde eta kultura guztietara. Misio hori gurera ere heldu da. Gure bokazio eta karisma desberdinekin, gu ere Jesusen piztuera iragartzera deituak gara. Gizarte eta kultur aldaketa sakonen erdian, gizakiak bere buruari eta munduari buruz duen kontzientzia aldatuz doan une hone-tan, aldatuz doaz sinesmenera hurbiltzeko eta Jesus Piztuari jarraitzeko erak ere. Ildo horretatik, in-kulturatzeko eta txertatzeko ahalegin handia egitera deitua da Eliza, gure testigantza, norberarena eta elkarteena, fedearen gordailua leial zainduz, gaur egun eskuragarri eta sinesgarri izan dadin.

## Sakontzeko

### Itun Berritik

#### *Piztu da Kristo - Korintoarrei lehen gutuna 15,17-21*

Eta Kristo pizturik ez badago, alferrikakoa da zuen sinesmena: zeuen bekatuetan zaudete oraindik. Eta zer esanik ez, hil diren kristauak ere galduak dira. Kristorengan jarria dugun itxaropenak bizitza honetarako bakarrik balio badu, gizaki guztietan errukarrienak gara. Baina ez, piztu da Kristo hilen artetik, heriotzatik piztuko direnen aitzindari. Izan ere, heriotza gizon baten bidez etorri zen bezala, gizon baten bidez etorri zen hildakoen piztuera ere.

### Gogoeta eta elkarrizketarako

1. *Non egiten duzu bat bereziki Jesus piztuarekin?*
2. *Jesusen piztueran duzun fedea ematen al dizu bizi-pozik?*
3. *Zer oihartzun du gaurko kulturen Jesu Kristo iragartzeak? Eta piztueran dugun itxaropenak? Zergatik?*
- 4: *Zer egin dezakegu fededunok gure fedearen testigantza biziagoa eman ahal izateko?*

### Vatikanoko II. Kontzilioak esana

“Kristoren bitartez eta Kristorengan argitzen da, honen Ebanjeliotik at larritasunez betetzen gaituen saminarene eta heriotzaren enigma. Kristo piztu egin zen, bere heriotzaz heriotza deseginez. Eta bizitza eman zigan, Semearengan seme-alaba izanik, Espirituarengan Abba! Aita! hots egin dezagun” (GS 22).

## Azken azpimarrak

Lukasen ebanjeliotik hartutako atalak gaurkotasun handia du, fededunon eta bizitzari zentzua eman nahian dabilzanen eguneroko esperientziarekin lotuta baitago. Hori dela eta, norbere bizitzarako eta elkarteentzako aparteko garrantzia duten alderdi batzuk gogoratu eta azpimarratu daitezke. Ataltxo bakoitza Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidearen erreferentzia batekin lotuko dogu orripean, hobeto ulertu ahal izateko.

1. **Fedea Norbaitengan sinestea eta konfiantza jartzea da, Berarekin topo egitea**<sup>4</sup>. Emausko ikasleak adoretuz doaz Jesusekin harremanetan. Honen azalpenak (Hitzak) eta keinuak (Eukaristiak) Kristorekin barru-barruko topaketa sakonerako prestatzen gaituzte. Horrek ordura arte bizi izandakoaren zentzua aldatzen du eta aldi berri baten hasiera markatzen du.

<sup>4</sup> Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidea 1.

2. **Gure fedearen erdigunea Jesus da, Jainkoaren Semea, Jainko eta gizon egiazkoa**<sup>5</sup>. Idazki honen lehenengo esaldian agertu dugu, Hebrearrei egindako gutunaren aipamenaren bidez. Bera da agertzen dena, nahita egiten du topo, hainbat egoera desberdinetan. Izan ere, edozein giza esperientzia izan daiteke Harekin topo egiteko bide.
3. **Fedea dohaina eta zeregina da**<sup>6</sup>. Jesu Kristo eman egiten zaigu bizitzako ibilbidean, baina ez da inposatzen. Bera hartu eta berari erantzuteko aukera ematen du. Gure eskaeraren zain dago: *Zaude gurekin*. Fedea ez da lorpena, gure indar eta gaitasunez irabazia. Jainkoaren dohaina da. Gure borondatearen baietza eskatzen du eta salbamenera zabaltzen gaitu.
4. **Fedearen muina konfiantza da**<sup>7</sup>. Gure bizitza konfiantzaz gurutzatuta dago (familian, lagunengan, taldeetan, Jainkoarengan). Konfiantzarik gabe zaila da bizitzea eta gizalegez haztea. Konfiantza landu eta sortarazten duen sinesmena poz-iturri da. Gure ondoan doan Jainkoarengan konfiantza jartzetik datorren lasaitasuna ematen digu.
5. **Fedea bidean agertzen zaigun Jainkoari baietza ematea da**<sup>8</sup>. Jesu Kristorengan jarritako konfiantzatik dator bere hitz, keinu eta egiteekin bat egitea. Horrek Elizaren eskuetan jarriak izan dira proposatzeko, testigantza bidez zabaltzeko eta aldarrikatzeko. Horrela, pertsonak bere erabateko baietza ematen du fedearen obedientzian.
6. **Fedeak Ebanjelioarekin bat datorren portaera eskatzen du**<sup>9</sup>. Jesusei jarraitzeak, Maisua- ren irudira egindako ikasleari dagozkion bizimodua, sentipenak, jarrerak eta aukerak sortarazten ditu. Piztua deskubritzeak eta Berarekin bat egiteak eragina du bizitzako arlo guztietan, pentsaeran eta portaeran, sentieran eta maitatzean. Ekintza eta iharduera eskatzen du. Lotura askaezina dago fede, esperantza eta maitasunaren artean. Bertute teologalak dira, hau da, Jainkoa dute iturburu<sup>10</sup>.
7. **Fedea ziurtasunez egina da, baina iluntasunei ere aurre egin behar die**<sup>11</sup>. Jesusengan sines- teak oinarriko ziurtasunak eta arrazoiak ematen ditu bizitzeko. Badakigu nortaz fidatu garen<sup>12</sup>. Baina fedearen ibilbidea zabalik dago, itxaropenez bila jarraitzeko. Jainkoarengan sinestea edo konfiantza jartzeak ez ditu zalantza edo galdera guztiak argitzen. Gizon eta emakume mistiko handien esperientziara hurbilduz gero, argi ikus dezakegu ez zaiela batere arrotz egiten erditzala, gau iluna, itsu-mustuan ibiltzea, bertan behera utzia sentitzea, gabezia bezala nabaritutako Jain- koaren esperientzia.
8. **Fedea norbere esperientzia da eta, era berean, eliz esperientzia**<sup>13</sup>. Jesus Piztuarekin topo egi- tea norbere esperientzia da eta horrek fede elkartera, Elizara garamatza beti. Behin sumatu edo asmatu ondoren, berri on bezala partekatu eta zabaldu behar da. Horregatik, ez dago kristau iza- terik elkarterik gabe eta jarrera misiolaririk gabe.

---

<sup>5</sup> Ibid. 1 eta 65.

<sup>6</sup> Ibid. 153-154 eta 160.

<sup>7</sup> Ibid. 227.

<sup>8</sup> Ibid. 143.

<sup>9</sup> Ibid. 25 eta 2052-2053

<sup>10</sup> Benedicto XVI.a, 2013.eko Garizumarako Mezua.

<sup>11</sup> Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidea 27.

<sup>12</sup> Ik 2 Tim 1, 12.

<sup>13</sup> Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidea 26 eta 166.

9. **Fedea bidea da, bizitza osorakoa**<sup>14</sup>. Urteak behar dira, Ebanjelioaren aberastasuna desukubritu eta bizitzeko. Bizitza honetan ezin da osotasuna lortu. Bakoitzak bere ibilbidea bete behar du, bere bokazio eta karismaren arabera. Heldu garela uste badugu, atzerapausoaren ezaugarria da. Daukagunarekin jadanik konforme egoteak konfiantza gutxi erakusten du bidean lagun egiten eta aurrera egiteko gonbita luzatzen digunarengan. Beti dugu bihotz-berritzeko beharrezana; beti dugu Jesus Piztuarekin topo egiteak ematen duen bizi-poza behin eta berriro sentitzeko premia.
10. **Fedeak Jainkoaren aztarnak sumatu eta aztertzea eskatzen du, sarritan susmagaitzak direla jakinik**<sup>15</sup>. Emausko ikasleek ezagutzen zituzten Liburu Santuak eta baita taldeko emakume fededunek esana ere. Gaur egun ere emakumeak dira gehienbat, gure familia eta elkarteetan Jesus bizi dela iragartzen eta aitortzen dutenak. Era berean, gure elkarteak, sarritan txikiak eta apalak izanik, edota hainbat pertsona xume dira, Jainkoaren presentziaren “fede ematen” dutenak gure munduan.

## Idazki osoa lantzeko

### *Jainkoaren Hitz irakurriz otoitz egin*

Amaitzeko, Idazki honen hari nagusizat hartu dugun testua – Lukas 24,13-35 – otoitz giroan irakurtzea proposatzen dizuegu.

1. Zer dio pasarte honek bere jatorrizko testuinguruan? Komentarioren bat edo ohar biblikoak erabili daitezke.
2. Testu honen bidez, zer esan nahi dit gaur Jainkoak?
3. Zein da nire erantzuna? Hitz egin Jainkoarekin otoitzean.
4. Zertara narama edo zer eskatzen dit Jainkoaren Hitz honek?

Idazki hau Fedearen Urtean idaztean, hauxe izan da gure asmoa: gure esperientzia partekatu eta zuoi gauza bera egiteko gonbita luzatu, elkarrizketan aritzeko eta bidean aurrera egiteko, Jesus Piztua beti bidelagun dugula jakinik.

Era berean, tresna egoki bat eskaini nahi izan dizuegu fededunon gogoeta eta eztabaidarako, eta baita bizitzaren zentzua bilatzen eta sakontzen dihardutenekin elkarrizketarako ere, hauek ere baldintzarik gebeko maitasunez maite gaituen Jainkoaren presentzia suma ahal izan dezaten.

Emausko bidea norbere bizitzako bidea da. Hor ematen zaigu Jesu Kristo sumatzea, Hitzean, liturgian eta zerbitzuan azaltzen zaigun bidelaguna. Aldi hau benetan emankorra izan dadila fedea bilatzeko, sakontzeko eta esker onez bizitzeko.

Iruñea eta Tuterako, Bilbao, Donostia eta Gasteiz  
2013ko otsailaren 13a  
Hausterre-eguna

+ Frantzisko, Iruñeako Artzapezpikua eta Tuterako Gotzaina  
+ Migel, Gasteizko Gotzaina  
+ Jose Ignazio, Donostiako Gotzaina  
+ Mario, Bilbaoko Gotzaina  
+ Juan Antonio, Iruñeako Gotzain Laguntzailea

<sup>14</sup> Ibid. 30 eta 33-34.

<sup>15</sup> Ibid. 2566.

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	2
Herri txikira zihozen... gertakizun guztietaz elkarrekin hizketan .....	4
Jerusalemen gertatu direnak.....	5
Eztabaidan... itsu zeuden eta ez zuten ezagutu .....	7
Liburu Santuan Hartaz idatzitako guztia agertu zien.....	8
Ogia zatitzean ezagutu zuten .....	9
Berehala altxa eta Jerusalemara itzuli ziren .....	11
Piztu da Jauna egiaz .....	12
Azken azpimarrak .....	13